

2005EKO MARTXOAREN 21EKO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko martxoaren hogeita batean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Xabier Arrasate Aierbe eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Xanet Barreras Jauregi eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, Eguneko Gai Zerrendatik kanpoko ondorengo puntu hauek presakazko izaeraz tratatzea proposatzen du: Udalaren aurkako demandan Udalaren izen eta defentsan aritzeko abogatuia izendatzea; Construcciones Aburuzaren dohaneko lur-ematea onartzea eta Construcciones Aburuzari lursaila eskualdatzea onartzea.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, onartu egiten du proposamena.

I.- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren 2005eko apirilaren 17an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetakoa den ekainaren 15eko 5/1985 Legearen 43 artikulua xedatutakoaren arabera.

Une honetan Xanet Barreras Jauregi eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak bertaratu dira batzarraldira.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

Jarraian eta Eguneko Gai Zerrendatik kanpo honako puntu hauek tratatzen dira:

II.- UDALAREN AURKAKO DEMANDAN UDALAREN IZEN ETA DEFENTSAN ARITZEKO ABOGATUA IZENDATZEA.-

Donostiako 1 zk.dun Lan arloko Epaitegiak Lazkaoko Udala alderdi demandatu bezala zitatu du Marian Jauregui Turrientesek sustatutako 149/05 zk.dun epailetara, kalera-tze demandari buruzkoa, Lazkaoko Udalaren aurkakoa.

Alkateak adierazten du Udalak, lan arloko prozeduretan, Javier Hernaez Manrique ibili ohi duela abogatu aholkulari gisa eta prozedura honetan ere ahalmena berari ematea proposatzen duela.

Azaldutako guztiaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, Donostiako 1 zbk.dun Lan arloko Epaitegian garatzen ari den 149/05 prozeduran udal honen ordezkaritza eta defentsarako Francisco Javier Hernaez Manrique letratuaren aldeko ahalmena ematea erabakitzen du.

Alkateak adierazten du ondoren tratatuko diren bi puntuak bata bestearekin zerkusia dutenak direla, eta hain zuzen ere, 2005eko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran erabakitako Construcciones Aburuza, S.A.rekin egitekoa zen lur trukaketarekin. Construcciones Aburuza, S.A.k Udalari eman behar zion lursaila, bere eskrituretan eta Tolosako Jabetza Erregistroan azaltzen den bezala, ezin dio Udalari trukatu, Udalari dohan ematekoa eta herri jabari eta erabilerarako dela jarrita daukanez, eta hori horrela, trukaketa ez baizik ondorengo bi puntuetan azaltzen den bezala egitea planteatzen da.

III.- CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.A.REN LUR-EMATEA ONARTZEA.-

Construcciones Aburuza, S.A.k Lazkaoko Udalari ondoren zehazten den lursaila dohan ematearen asmoa azaldu du: Lazkaoko Arau Subsidiarioetako 4 Hirigintz Areako S.4.2 eta S.4.3ko Konpentsazio Proiektuko ondoriozko 1 zbk.dun lursail eraikigarritik datorren hirurogeita bederatzi (69,-) metro karratutako zatia. Lur zati hau herri jabari eta erabilera gisa emango luke.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A.ren emate hau onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea Udalaren izenean onartze hau behar bezala formalizatzeko egin beharrekoak egin eta izenpetu beharrekoak izenpetu ditzan.

IV.- CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.A.RI LURSAILA ESKUALDATZEA.-

Lazkaoko Udala Arau Subsidiarioetako 4 Hirigintz Areako S.4.1eko Konpentsazio Proiektuan herri jabari eta erabilerako ondoriozko 2 zbk.dun lursailaren jabea da.

Udal Osoko Bilkurak, 2004ko maiatzaren 26an egindako batzaraldian, lursail hone-tatik 91 metro karratu azalerako gunea, bere espedientearen azaltzen den planoan ikusten den moduan kokatutakoa, herri erabileratik desafektatzeko espedientearen behin betikoz onartzea erabaki zuen.

Orain laurogeita hamaika (91,-) metro azalerako lursail hau Construcciones Aburu-za, S.A.ri eskualdatzea planteatzen da.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera laurogeita hamaika metro karratu-ko lursail honen balioa hamabi mila seirehun eta hogeita hamabost euro eta hogeita ha-mabost zentimotakoa (12.635,35 €) da.

Alkateak esaten du Construcciones Aburuza, S.A.k balio honen gaineratik egongo di-ren urbanizazio lanen bidez ordainduko duela balio hau, orain artean Uhaitz 2 eta 3 etxee-tara zerbitzu ematen zion gas depositua lurpetik atera eta inguru hori txukuntze lanen bi-dez hain zuzen ere.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Construcciones Aburuza, S.A.ri S.4.1ean 91 metro karratutako lursaila eskualdatzea hamabi mila seiehun eta hogeita hamabost euro eta hogeita hamabost (12.635,35,- €) eurotako prezioan.
- 2.- Alkatea ahalmentzea Udalaren izenean eskualdaketa hau burutzeko egin beharrekoan egin eta izenpetu beharrekoak izenpetu ditzan.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeitaz direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen du-dalarik.